

FUNDAZIOAREN HELBURUAK ETA AURREIKUSITAKO JARDUERAK

Fundazioaren xedea eta helburua da Euskal Kostaldeko ekonomia eta kultura sustatzea.

Hori lortzeko, honako jarduera hauek egingo ditu:

a) Merkataritza-jardunak egin daitezten sustatzea, antolatzea edo zuzentzea (azokak, erakusketak, erakusketa monografikoak, ...). Txingudi badian, hain zuzen, Gipuzkoako Erakustazokan.

b) Azoken sektore merkadologikoarekin lotura duten ikastaroak, mintegiak, mahai-inguruak, hitzaldi-zikloka, kongresuak, sinposioak, solasaldiak eta azterketa- eta ikerketa-saioak antolatzea.

c) Informaziozko eta dibulgaziozko liburuxkak, monografiak eta argitalpen-mota oro idaztea, argitaratzea, diruz laguntzea eta banatzea.

d) Estatistika-inkestak sustatzea, diruz laguntzea edo egitea.

e) Informazio, prentsa, irrati, telebista kanpainak-eta antolatzea.

f) Lehiaketak, baimenak eta abar deitzea.

g) Euskal Kostaldeko ekonomia eta kultura sustatzen laguntzen duen edozein zerbitzu sustatzea.

h) Beste edozein jarduera, FICOBA FUNDAZIOARI bere helburuak ahalik eta ondoren betetzen laguntzen dion neurrian.